

Iragarkiak

Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

IRAGARKIA, Santurtziko itsas terminalean turismoari buruzko informazio-zerbitzuaren kontratazioaren esleipena jakinarazteko. (Esp.: I.C.T.: 21/35/99).

6814

OSASUN SAILA

ESLEIPENA, Osakidetzaarena, Santa Marina Ospitalerako haragikiak eskuratzeko espedienteari dago-kiona.

6815

Beste Iragarki Ofizial Batzuk

BILBOKO UDALA

IRAGARKIA, Artigas bidean hiriko hondakin solidoen balorazio energetikorako zentral bat jartzeari buruzkoa.

6816

Xedapen Orokorrak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

Zk-1834

AGINDUA, 2000ko martxoaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiaren 211/1997 Dekretua, irailaren 30ekoa, garatzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta bere erakunde autonomoetan aldez aurreko fondoan araubideari dago-kionez.

Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiaren 211/1997 Dekretuak, irailaren 30ekoak, bere Bigarren Sekzioan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta be-

Anuncios

Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

ANUNCIO por el que se da publicidad a la adjudicación del contrato que tiene por objeto la contratación de un servicio de información turística en terminal marítima de Santurtzi. (Expte. I.C. 21/35/99).

6814

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

ADJUDICACIÓN de Osakidetza-Servicio vasco de salud, del expediente relativo al suministro de productos cárnicos con destino al Hospital de Santa Marina.

6815

Otros Anuncios Oficiales

AYUNTAMIENTO DE BILBAO

ANUNCIO relativo a la instalación de una actividad de planta de valorización energética de residuos sólidos urbanos en Camino de Artigas.

6816

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

Nº-1834

ORDEN de 30 de marzo de 2000, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se desarrolla el Decreto 211/1997, de 30 de septiembre, de la Tesorería General del País Vasco, en lo que respecta al régimen de los fondos anticipados en la Administración de la Comunidad Autónoma de Euzkadi y sus Organismos Autónomos.

El Decreto 211/1997, de 30 de septiembre, de la Tesorería General del País Vasco, establece en su Sección Segunda la regulación del régimen de los fondos anti-

re erakunde autonomoetan aldez aurreko fondoaren araubidea erregulatzen du, diruzaintzaren deszentralizazioa handituz.

Aipatutako Dekretuaren garapena gauzatzearren ezinbestekoak diren xedapenak ezartzeko helburuarekin, dagozkion arauak eman behar dira.

Ondorioz, eta aipatu Dekretuak emandako eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Aldez aurreko fondoaren diru-horniketa.

1.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailtako organo nagusi edo sailtako lurralde eremuentzako hasierako fondoaren diru-horniketa «ET» aurrekontuz besteko kontabilitate agiria betez egingo da, ondoko hau adieraziz:

a) Sarrera kontua: aldez aurreko fondoaren pentzutan egin beharreko ordainketetarako kontu eskuordetuei esleitutako kontabilitate kodea.

b) Ordainketa kontua: Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiak bete beharreko kontabilitate kodea.

c) Zenbatekoa: Aldez aurreko fondoarena, irailaren 30eko 211/1997 Dekretuaren 14. artikuluan adierazten den moduan kalkulaturik. Zenbatekoa zehaztu ondoren, bakarrik alda daiteke ekitaldi bakoitzaren hasieran, aurrekontu berriaren onarpenak sortutako aldaketen arabera eta ekitaldia bukatu arte aldaezina geratzen delarik.

d) Kontzeptu laburtua: «Aldez aurreko fondoa»-rena izango da beti.

e) Dokumentazio euskarria: eskatu den zenbatekoa zehazteko egin diren kalkuluen justifikazioa.

2.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren erakunde autonomoen organo nagusi edo horien lurralde eremuentzako hasierako fondoaren diru-horniketa, ondoren adierazten diren aurrekontuz besteko kontabilitate agiriak betez egingo da, ondoko hau adieraziz:

a) «EI» dokumentua dagozkion erakunde autonomoan:

— Finantza-kontua: aldez aurreko fondoaren pentzutan egin beharreko ordainketetarako kontu eskuordetuei esleitutako kontabilitate kodea.

— Aurrekontuz kanpoko kontua: Administrazio Orokorrarekiko epe laburreko maileguren kontuei esleitutako kontabilitate kodea.

— Diru sarrera era: transferentziaren T-a.

— Erreferentziala: Ez da bete behar.

— Hirugarrena: Ez da bete behar.

cipados en la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos, ampliando la descentralización en materia de tesorería.

Al objeto de establecer las disposiciones necesarias para el desarrollo del mencionado Decreto, se hace necesario dictar las normas correspondientes encaminadas a tal fin.

En su virtud, y en uso de las facultades atribuidas por el citado Decreto,

DISPONGO:

Artículo 1.— Provisión de fondos anticipados.

1.— La provisión de fondos inicial de los órganos centrales y periféricos de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma se realizará mediante la cumplimentación del documento contable no presupuestario «ET» en el que deberán figurar:

a) Cuenta de ingreso: código contable asignado a las cuentas delegadas para pagos con cargo a fondos anticipados.

b) Cuenta de pago: código contable a rellenar por la Tesorería General del País Vasco.

c) Importe: el del fondo anticipado calculado según lo indicado en el artículo 14 del Decreto 211/1997, de 30 de septiembre. Una vez determinado el importe, sólo podrá modificarse al inicio de cada ejercicio, en función de las variaciones que se produzcan por la aprobación del nuevo presupuesto, permaneciendo inamovible durante todo el ejercicio.

d) Concepto resumido: será siempre el de «Fondo anticipado».

e) Documentación soporte: la justificación de los cálculos realizados para determinar el importe solicitado.

2.— La provisión de fondos inicial de los órganos centrales y periféricos de los Organismos Autónomos de la Administración de la Comunidad Autónoma se realizará mediante la cumplimentación de los siguientes documentos contables no presupuestarios en los que deberán figurar:

a) Documento «EI» en el Organismo Autónomo correspondiente:

— Cuenta financiera: código contable asignado a las cuentas delegadas para pagos con cargo a fondos anticipados.

— Cuenta no presupuestaria: código contable asignado a las cuentas de créditos a corto plazo con la Administración General.

— Forma de ingreso: T de transferencia

— Referencial: No procede su cumplimentación.

— Tercero: No procede su cumplimentación

b) «EO» dokumentua Administrazio Orokorrean:

– Finantza kontua: Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiak bete beharreko kontabilitate kodea.

– Aurrekontuz kanpoko kontua: erakunde autonomekiko epe laburreko zorrei esleitutako kontabilitate kodea.

– Ordainketa era: Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiak bete beharrekoa.

– Erreferentziala: Ez da bete behar.

– Hirugarrena: Ez da bete behar.

Gainontzeko kontzeptuak aurreko 1 paragrafoan azaltzen den bezala beteko dira.

3.– Adierazitako aurrekontuz besteko kontabilitate agiriak kontabilizatu ondoren, fondoak sailetako eta erakunde autonomoetako organo nagusi edo lurralde eremuetakoen esku egongo dira, bakoitzak baimendutako aldez aurreko fondoen pentzutari egin beharreko ordainketetarako kontu eskuordetuetan.

2. *artikula*.– Aldez aurreko fondoen berrezarpena.

1.– Aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren hasieran, aldez aurreko fondoen berrezarpena «ET», «EI» eta «EO» aurrekontuz besteko kontabilitate agiriak betez egingo da, aurreko artikulua azaltzen den bezala, salbuespen bakar batekin: zenbatekoa, ekitaldi berrirako fondo-horniketaren eta aurreko ekitaldia ixtean aldez aurreko fondoen kontuak duen kontabilitateko saldoaren arteko aldea izango da.

2.– Aurrekontu-ekitaldiaren zehar, eta aldez aurreko fondoen kontrako gastuen bilakaerak horrela eskatzen duenean, fondoen berrezarpenari ekingo zaio. Hori buruz esan behar da, sail eta erakunde autonomo bakoitzaren erantzukizuna izango dela berrezarpena eskatzeko orduan dokumentazioa prestatzeko eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoan tramitzatzeko behar duten denbora aurreikustea, aldez aurreko fondoen kontuetan diruzaintzan egoera larriak eragotziz.

Aurrekontu-ekitaldiaren zehar aldez aurreko fondoen berrezarpenak gastuen egozketa dakar dagokion aurrekontuari, eta «ADO» aurrekontu izaerako kontabilitate agiriak betez egingo da, ondoko era honetara:

a) Erreferentzia: ez da bete behar, kontabilitate sistema informatikoak jarriko du.

b) Aurrekontu-aplikazioa: «Eranskina» hitza jarriko da beti. Eranskin horretan aldian gastatutakoa eta ordaindutakoaren guztia xehatuko da dagozkion aurrekontu-aplikazioetan, gastu eta egitura organikoaren izaeraren eta sail eta erakunde autonomoetako programen arabera.

c) Kontzeptu laburtua: «Aldez aurreko fondoen berrezarpena» jarriko da beti, horren zenbakia adieraziz.

b) Documento «EO» en la Administración General:

– Cuenta financiera: código contable a rellenar por la Tesorería General del País Vasco.

– Cuenta no presupuestaria: código contable asignado a las cuentas de deudas a corto plazo con Organismos Autónomos.

– Forma de pago: a rellenar por la Tesorería General del País Vasco.

– Referencial: No procede su cumplimentación

– Tercero: No procede su cumplimentación

El resto de conceptos se cumplimentarán de acuerdo con lo indicado en el párrafo 1 anterior.

3.– Una vez contabilizados los documentos contables no presupuestarios indicados, los fondos quedarán a disposición de los órganos centrales y periféricos de los Departamentos y Organismos Autónomos en las cuentas delegadas para pagos con cargo a fondos anticipados, autorizadas para cada uno de ellos.

Artículo 2.– Reposición de los fondos anticipados.

1.– Al inicio de cada ejercicio presupuestario, se realizará la reposición de los fondos anticipados mediante la cumplimentación de los documentos no presupuestarios «ET», «EI» y «EO», tal y como se indica en el artículo anterior, con la única salvedad de que el importe será el correspondiente a la diferencia entre la provisión del fondo para el nuevo ejercicio y el saldo contable de la cuenta de fondos anticipados al cierre del ejercicio anterior.

2.– A lo largo del ejercicio presupuestario, cuando la evolución de los gastos contra los fondos anticipados así lo aconseje, se procederá a la reposición de los mismos. A este respecto, será responsabilidad de los Departamentos y Organismos Autónomos correspondientes prever el período necesario de preparación de la documentación y de tramitación ante la Oficina de Control Económico a la hora de solicitar la reposición, evitando situaciones límite de tesorería en las cuentas de fondos anticipados.

La reposición de los fondos anticipados a lo largo del ejercicio presupuestario, implica la imputación de los gastos al presupuesto respectivo, y se realizará mediante la cumplimentación del correspondiente documento contable presupuestario (ADO) de la siguiente forma:

a) Referencia de intervención: no se cumplimentará, será la asignada por el sistema informático contable.

b) Aplicación presupuestaria: se indicará siempre «Anexo». En el anexo se desglosará el total gastado y pagado en el período en las aplicaciones presupuestarias que corresponda, de acuerdo con la naturaleza del gasto y la estructura orgánica y por programas de los Departamentos y Organismos Autónomos.

c) Concepto resumido: Será siempre «Reposición de fondos anticipados», indicando el n.º de la misma.

d) Zenbatekoa: Kitatzen den aldian egin eta ordaindu den gastu guztia. Eman eta ordaindu diren gastuen aurrerakinak justifikatutzat emango dira hauen kitapena egiten denean. Une honetan gastua aurrekontuari egotzi dakioke eta, beraz, bere zenbatekoa itzuli.

e) Hirugarrenaren kodea: sail edo erakunde autonomo bakoitzeko organo nagusi eta lurralde eremuetakoei emango zaiena. Horien banku-datuak alde aurreko fondoen kontukoak izango dira.

f) Ordainketa era: transferentziaren T-a.

g) Finantza kontua: ez da bete behar; ekitaldiaren itxierako «ADO»-a salbu, zeinean alde aurreko fondoen kontuari esleitutako kontabilitate kodea adierazi baita.

h) Atxikipen-datuak: ez dira bete behar.

i) Mugaeguna: ez da bete behar.

j) Beste hartzailearen kodea: ez da bete behar.

k) Dokumentazio euskarria:

– Fondoak berrezarri diren egunean dagoen saldoa agertzen duen finantza-etxearen ziurtagiria edo data horretan saldoa adierazten duen laburpen bankarioaren fotokopia.

– Data berean saldoa agertzen duen banku-liburua-ren fotokopia.

– Ziurtagirian edo laburpen bankarioan agertzen den saldoaren eta banku-liburuan agertzen denaren arteko adostasuna, Agindu honi erantsita doakion I. eranskini jarraituz.

– Kontuaren azterketa, Agindu honi erantsita doakion II. eranskini jarraituz.

3.– Kontuhartze kontrola egin, 211/1997 Dekretuaren 18. artikuluari jarraituz, eta aurrekontu izaerako kontabilitate agiriak (ADO) kontabilizatuak izan ondoren, fondoak berrezarriko dira, kontabilitate agiritan agertzen den kopuruan, alde aurreko fondoen kontuetan.

4.– Aurrekontu-ekitaldiaren bukaeran, alde aurreko fondoen kontuak kitatzeari ekingo zaio, abenduaren 31ra arte sortutako eta ordaindutako gastuei dagokien beste alde aurreko fondoen berrezarpena eskatuz. Ekitaldian sortutako eta abenduaren 31n ordaindu gabeko gastuak, hurrengo ekitaldian egingo diren fondoen berrezarpenetan bideratuko dira.

Abenduaren 31n kitatzeke dauden alde aurreko fondoengatik, ondorengo aurrekontuz besteko kontabilitate agiria hauek beteko dira:

a) «EO» dokumentua, ixten den ekitaldian:

d) Importe: El total de los gastos realizados y pagados en el período que se liquida. Los anticipos de gastos concedidos y abonados se entenderán justificados cuando se produzca la liquidación de los mismos, siendo este momento cuando se podrá imputar el gasto al presupuesto y, por tanto, reponer su importe.

e) Código de Tercero: el que se asigne a los órganos centrales y periféricos de cada Departamento u Organismo Autónomo, y cuyos datos bancarios serán los de las cuentas de fondos anticipados.

f) Forma de pago: «T» de transferencia.

g) Cuenta financiera: no se cumplimentará, a excepción del «ADO» de cierre de ejercicio dónde se indicará el código contable asignado a la cuenta de fondos anticipados.

h) Datos de retención: No procede su cumplimentación.

i) Fecha de vencimiento: No procede su cumplimentación.

j) Código del endosatario: No procede su cumplimentación.

k) Documentación soporte:

– Certificación de la entidad financiera en la que conste el saldo en la cuenta correspondiente a la fecha de reposición o fotocopia del extracto bancario en el que conste el saldo a la fecha mencionada.

– Fotocopia del Libro de Bancos en el que conste el saldo a la misma fecha.

– Conciliación del saldo que figura en la certificación o extracto bancario y el que figura en el Libro de Bancos, según el modelo que se adjunta como Anexo I a la presente Orden.

– Análisis de la cuenta, según el modelo que se adjunta como Anexo II a la presente Orden.

3.– Una vez realizado el informe de control interventor indicado en el artículo 18 del Decreto 211/1997 y contabilizados los documentos contables presupuestarios (ADO), se repondrán los fondos en la cuantía del importe que figura en el documento contable en las correspondientes cuentas de fondos anticipados.

4.– Al cierre del ejercicio presupuestario, se efectuará la liquidación de las cuentas de fondos anticipados, solicitando la reposición de los fondos anticipados por el importe de los gastos devengados y pagados hasta el 31 de diciembre. Los gastos devengados en el ejercicio y no pagados al 31 de diciembre, serán tramitados en las reposiciones de fondos a realizar en el siguiente ejercicio.

Por los anticipos pendientes de liquidar a 31 de diciembre, se realizarán los siguientes documentos no presupuestarios:

a) Documento «EO» en el ejercicio que se cierra:

– Finantza kontua: aldez aurreko fondoenez pentzutan egin beharreko ordainketetarako kontu eskuordetuei esleitutako kontabilitate kodea.

– Aurrekontuz kanpoko kontua: gastu-aurrerakinen kontuei esleitutako kontabilitate kodea.

– Zenbatekoa: abenduaren 31n kitatzeke dauden aurrerakinei dagokiena.

– Kontzeptu laburtua: «abenduaren 31n kitatzeke dauden gastuen aurrerakinak» jarriko da beti.

– Ordainketa era: esku-transferentziaren B-a.

– Erreferentziala: ez da bete behar, kontabilitate sistema informatikoak jarriko du.

– Hirugarrenaren kodea: sail edo erakunde autonomo bakoitzeko organo nagusi eta lurralde eremuetakoei emango zaiena. Horien banku-datuak aldez aurreko fondoenez kontukoak izango dira.

b) «EI» dokumentua hurrengo ekitaldian:

– Finantza kontua: aldez aurreko fondoenez pentzutan egin beharreko ordainketetarako kontu eskuordetuei esleitutako kontabilitate kodea.

– Aurrekontuz kanpoko kontua: gastu-aurrerakinen kontuei esleitutako kontabilitate kodea.

– Zenbatekoa: abenduaren 31n kitatzeke dauden aurrerakinei dagokiena.

– Kontzeptu laburtua: «abenduaren 31n kitatzeke dauden gastuen aurrerakinak» jarriko da beti.

– Diru sarrera era: transferentziaren T-a.

– Erreferentziala: aurreko «EO» dokumentuari dagokiona.

– Hirugarrenaren kodea: sail edo erakunde autonomo bakoitzeko organo nagusi eta lurralde eremuetakoei emango zaiena. Horien banku-datuak aldez aurreko fondoenez kontukoak izango dira.

Abenduaren 31an geratzen diren soberakinek aldez aurreko fondoenez kontuetan jarraituko dute.

3. artikulua.– Aldez aurreko fondoenez pentzutan egin beharreko ordainketetarako kontu eskuordetuen korrituak.

1.– Aldez aurreko fondoenez kontuetan sortutako korrituak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiaren kontu nagusira transferituko dira, finantza-etxeek ordaindu bezain laster eta banku-transferentziaren bidez.

2.– Aurrekontu-ekitaldian sortutako eta Euskal Herriko Diruzaintza Nagusian sartutako korrituengatik, «RI» dokumentua beteko da, ondorengo hau adieraziz:

a) Erreferentzia: ez da bete behar, kontabilitate sistema informatikoak jarriko du.

b) Aurrekontu aplikazioa: sail edo erakunde autonomoaren «banku-korrituak» deritzen 533.00 atalari dagokiona.

– Cuenta financiera: código contable asignado a las cuentas delegadas para pagos con cargo a fondos anticipados.

– Cuenta no presupuestaria: código contable asignado a las cuentas de anticipos para gastos.

– Importe: el correspondiente a los anticipos concedidos pendientes de liquidar a 31 de diciembre.

– Concepto resumido: será siempre «Anticipos de gastos pendientes de liquidar a 31 de diciembre».

– Forma de pago: B de transferencia manual.

– Referencial: no se cumplimentará, será el asignado por el sistema informático contable.

– Código de Tercero: el que se asigne a los órganos centrales y periféricos de cada Departamento u Organismo Autónomo, y cuyos datos bancarios serán los de las cuentas de fondos anticipados.

b) Documento «EI» en el ejercicio siguiente:

– Cuenta financiera: código contable asignado a las cuentas delegadas para pagos con cargo a fondos anticipados.

– Cuenta no presupuestaria: código contable asignado a las cuentas de anticipos para gastos.

– Importe: el correspondiente a los anticipos concedidos pendientes de liquidar a 31 de diciembre.

– Concepto resumido: será siempre «Anticipos de gastos pendientes de liquidar a 31 de diciembre».

– Forma de ingreso: T de transferencia.

– Referencial: el correspondiente al documento «EO» anterior.

– Código de Tercero: el que se asigne a los órganos centrales y periféricos de cada Departamento u Organismo Autónomo, y cuyos datos bancarios serán los de las cuentas de fondos anticipados.

Los remanentes existentes a 31 de diciembre permanecerán en las cuentas de fondos anticipados.

Artículo 3.– Intereses de las cuentas delegadas para pagos con cargo a fondos anticipados.

1.– Los intereses que se produzcan en las cuentas de fondos anticipados se transferirán, con carácter inmediato a su abono por las entidades financieras y mediante transferencia bancaria, a las cuentas centrales de la Tesorería General del País Vasco.

2.– Por los intereses devengados e ingresados en la Tesorería General del País Vasco durante el ejercicio presupuestario se cumplimentará un documento «RI» en el que deberán figurar:

a) Referencia de Intervención: no se cumplimentará, será la asignada por el sistema informático contable.

b) Aplicación presupuestaria: la que corresponda al concepto 533.00 «Intereses bancarios» del Departamento u Organismo Autónomo.

c) Kontzeptu laburtua: «... aldiko banku-korrituak» jarriko da beti.

d) Hirugarrenaren kodea: sail edo erakunde autonomo bakoitzeko organo nagusi eta lurralde eremuetakoei emango zaiena.

e) Zenbatekoa: sortutako eta finantza-etxeak ordaindutakoari dagokiona, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiaren kontu nagusirentzat ezarritako antzeko baldintzatan.

f) Finantza kontua: bete gabe utziko da.

g) Diru sarrera era: aplikazioaren zain dauden sarreren «I»-a.

h) Erreferentziala: sail edo erakunde autonomo bakoitzak duena aplikazioaren zain dauden sarreren kontuan.

i) Aurrekontuz kanpoko kontua: sail edo erakunde autonomo bakoitzaren aplikazioaren zain dauden sarreren kontuari dagokion kontabilitate kodea.

j) Dokumentazio euskarria: finantza-etxeak egiten duen korrituen kitapena.

3.- Ekitaldia ixterakoan, eta abenduaren 31rako sortutako korrituak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusian hurrengo ekitaldian sartzen diren unean, ixten den ekitaldiaren kontura «R» dokumentu bat beteko da eta, hurrengo ekitaldiaren kontura, «MI» dokumentu bat. Bietan adieraziko dira aurrekontu aplikazio eta ikuskaritza erreferentzi berdinak, azken honetan ekitaldia aldatuz.

4. *artikulua*.— Aldez aurreko fondoan pentzutan egin beharreko ordainketetarako kontu eskuordetuen mugimenduen berariazko oharak.

1.— Sail edo erakunde autonomoko organo nagusi eta lurralde eremuetakoei zor-txartel bat edukiko dute. Txartel hori erabiliko da soilik eskatutako aurrerakinen eta kutzako fondo finkoaren zuzkidura eta ondorengo berrezarpenen diru-kopuru zehatza berdintzeko behar den eskudirua lortzeko.

2.— Hirugarrenei egin beharreko ordainketak banku-transferentzia bidez egingo dira. Banku-transferentziak egin nahi diren ordainketa guztiak elkartzuz egingo dira.

3.— Banku-liburuan agertu beharreko mugimendu bakarrak, eta beraz, aldez aurreko fondoan kontuen bidez egin ahal izango diren eragiketa bakarrak, 3. artikuluan aipatzen diren korrituen transferentziak kenduz, ondoren azaltzen diren kontzeptuengatik izango dira:

a) Diru-sarrerak:

1) Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiak egiten dituen aldez aurreko fondoan hasierako horniketa eta hauen berrezarpenak.

2) Gastuen aurrerakinen itzulera guztizkoa ala zatikakoa.

c) Concepto resumido: Será siempre «Intereses bancarios del período...».

d) Código de Tercero: El que se asigne a los órganos centrales y periféricos de cada Departamento u Organismo Autónomo.

e) Importe: el correspondiente a los intereses devengados y abonados por la entidad financiera, bajo las mismas condiciones que las establecidas para las cuentas centrales de la Tesorería General del País Vasco.

f) Cuenta financiera: se dejará en blanco.

g) Forma de ingreso: «I» de ingresos pendientes de aplicación.

h) Referencial: el indicado en la cuenta de ingresos pendientes de aplicación de cada Departamento u Organismo Autónomo.

i) Cuenta no presupuestaria: El código contable correspondiente a la cuenta de ingresos pendientes de aplicación de cada Departamento u Organismo Autónomo.

j) Documentación soporte: la liquidación de intereses efectuada por la entidad financiera.

3.— Al cierre del ejercicio, cuando los intereses devengados a 31 de diciembre se ingresen en la Tesorería General del País Vasco en el ejercicio siguiente, se cumplimentará un documento «R» con cargo al ejercicio que se cierra y un documento «MI» con cargo al ejercicio siguiente en el que se indicarán la misma aplicación presupuestaria y la misma referencia de intervención modificando el ejercicio en ésta última.

Artículo 4.— Especificaciones sobre movimientos en las cuentas delegadas para pagos con cargo a fondos anticipados.

1.— Los órganos centrales y periféricos de los Departamentos y los Organismos Autónomos dispondrán de una tarjeta de débito que se utilizará exclusivamente para la obtención del efectivo necesario para cubrir el importe exacto de los anticipos solicitados y la dotación y posteriores reposiciones del fondo fijo de caja.

2.— Los pagos a terceros se realizarán mediante transferencia bancaria. Las transferencias se realizarán agrupando todos los pagos que se decidan realizar.

3.— Los únicos movimientos que figurarán en el Libro de Bancos y, por tanto, las únicas operaciones que se podrán realizar a través de las cuentas de fondos anticipados, sin perjuicio de las transferencias de intereses a que hace referencia el artículo 3, serán por los siguientes conceptos:

a) Ingresos:

1) Provisión inicial de los fondos anticipados y reposiciones de los mismos por parte de la Tesorería General del País Vasco.

2) Devolución total o parcial de anticipos de gastos.

3) Salbuespenez, ordainketen itzulerak direla eta, finantza-etxeak egiten dituen abonuak.

b) Ordainketak:

1) Hirugarrenak ordaintzeko egin diren transferentzien guztizko zenbatekoa.

2) Eskudiruaren erabilerak, gastutarako aurrerakinen kontzesioterako eta kutzako fondo finkoaren zuzkidura eta ondorengo berrezarpenetarakoa.

3) Bidai gastutarako aurrerakinak emateko, finantza-etxeari eskatutako dibisen zenbatekoa (kontrabaliopetzen).

5. artikulua.— Erregistro eta artxibaketa.

Irailaren 30eko 211/1997 Dekretuaren 17. artikulua ezartzen duenari jarraituz, aldez aurreko fondoen kontuak kudeatzeko ardura duten organoek ondorengo erregistro eta artxibaketa egin beharko dituzte:

1.— Fakturen artxiboa: hemen sartu behar dira faktura guztiak, bidai gastuen edo gastuen egiaztagirien kontu-garbitaketak, apuntearen arabera korrelatiboki ordenatuta.

2.— Gastuen erregistroa: hemen azalduko dira aurrekontu-aplikazio bakoitzeko egin eta ordaindutako gastuak. Erregistro hau, lehen aipatutako aldez aurreko fondo arrunten berrezarpenetarako aurrekontu izaerako kontabilitate agiriaren (ADO) «Eranskina» betetzeko oinarria izango da, ondoko hau adieraziz:

- Apunte-zenbakiaren data.
- Apunte-zenbakia: korrelatiboa, dataren arabera.
- Deskribapena: faktura zenbakia, hala badagokio, eta, orokorrean, gastuaren zioa.
- Enparauaren IFZ.
- Eragiketaren zenbatekoa.
- Ordainketa eguna: transferentziak finantza-etxera bidaltzen diren eguneko.
- Metatua guztira: zenbatekoen guztira, egin den azken eragiketa barru ere.

3.— Banku-liburua: hemen jasoko dira aldez aurreko fondoen kontuan egindako mugimenduak, aurreko artikulua eragiketen arabera, ondoko hau adieraziz:

– Banku-eragiketa eguna, hau da:

a) Ordainketen kasuan; finantza-etxeari eragiketa egiteko edo, kutzazainen edo txekeren bidez, fondoak hartzeko agindua ematen zaioneko.

b) Diru-sarreraren kasuan; finantza-etxeak hauek ordaintzen ditueneko.

- Apunte-zenbakia: korrelatiboa, dataren arabera.
- Transferentzia zenbakia: korrelatiboa, egiten diren transferentzia-zerrenda bakoitzaren arabera.

3) Excepcionalmente, figurarán los abonos que realice la entidad financiera por retrocesiones de pagos.

b) Pagos:

1) Importe total de las transferencias realizadas para el pago a los terceros.

2) Disposiciones en metálico obtenidas para la concesión de anticipos para gastos y para la dotación inicial y posteriores reposiciones del fondo fijo de caja.

3) Importe de las divisas (contravalor en pesetas) solicitadas a la entidad financiera para concesión de anticipos para gastos de viaje.

Artículo 5.— Registros y Archivos.

Los órganos encargados de la gestión de las cuentas de fondos anticipados, a tenor de lo establecido en el artículo 17 del Decreto 211/1997, de 30 de septiembre, deberán llevar los siguientes archivos y registros:

1.— Archivo de Facturas: deberá recoger todas las facturas, las liquidaciones de gastos de viaje o comprobantes de gastos, en orden correlativo, por número de apunte.

2.— Registro de gastos: deberá indicar los gastos realizados y pagados, para cada aplicación presupuestaria ya que será la base para la cumplimentación del «Anexo» del documento contable presupuestario (ADO) de reposición de fondos ordinarios anticipados indicado anteriormente, con el siguiente detalle:

- Fecha del n.º de apunte.
- Número de apunte: correlativo por fecha.
- Descripción: número de factura, si procede y, en general, concepto del gasto.
- NIF del tercero.
- Importe: el de la operación.
- Fecha de pago: la de remisión de las transferencias a la entidad financiera.
- Total acumulado: total de importes hasta la última operación realizada.

3.— Libro de bancos: deberá recoger los movimientos en la cuenta de fondos anticipados de acuerdo con las operaciones relacionadas en el artículo anterior, con el siguiente detalle:

– Fecha en la que se realiza la operación bancaria, es decir:

a) En el caso de pagos, fecha en la que se dé orden a la entidad financiera para que realice la operación o se obtengan los fondos a través del cajero o mediante cheque.

b) En el caso de ingresos, será la fecha en que la entidad financiera abone los mismos.

- Número de apunte: correlativo por fecha.
- Número de transferencia: correlativo por cada una de las relaciones de transferencias que se realicen.

- Deskribapena: ordainketaren edo sarreraren zioa.
- Zenbatekoa: ordainketa edo sarrerarena.
- 4.– Aurrerakinen erregistroa: une guztietan jaso behar ditu eman diren, kitatu diren edo kitatzeke dauden gastuentzako aurrerakinak. Kitatzeke daudenak dira fakturen artxiboan, eta beraz gastuen erregistroan, gastu bezala sartu gabe daudenak. Honako datu hauek jaso behar dira:
 - Apunte-zenbakia: korrelatiboa, dataren arabera.
 - Emate-eguna: aurrerakina ematen den eguna. Aurrerakina hartzen duenak jaso-agiri bat sinatu beharko du.
 - Aurrerakina jasotzen duenaren izena eta bi abizenak.
 - Kitapen-eguna: aurrerakina kitatzen denekoa eta, ondorioz, kitapena faktura artxiboan eta gastuen erregistroan sartzen denekoa.
 - Kitapenaren apunte zenbakia: korrelatiboa, dataren arabera.
 - Metatua guztira, une bakoitzean, eman diren, kitatu diren eta kitatzeke dauden aurrerakinena.
- 5.– Zerbitzuagatik kalte-ordainen erregistroa: honek gastu-kitapen bakoitzeko banakako informazioa jasoko du, ondoren zehazten den eran:
 - a) Interesatuaren izen-abizenak.
 - b) Gastuaren kitapen-data.
 - c) Zenbatekoa guztira: kitapenaren guztizko zenbatekoa azalduko du.
 - d) Gastuen guztizko zenbatekoaren banaketa, honako sailkapen honekin:
 - Norberaren garraioa: norberaren ibilgailuarekin egindako kilometroen gastua jasoko du.
 - Ibilgailuen erregaia: Ibilgailuak delako zerbitzua-ren autoetako erregaia ordainketak jasoko ditu.
 - Autobide-saria.
 - Garraio kolektiboa: hegazkina, trenbidea, beste-lakoak.
 - Taxi.
 - Ostatu-gastuak: egoitza ofizialetik kanpo gaua ematen denean, ostatu eta gosariaren diru-kopurua jasoko du.
 - Otorduetako gastuak eta mantenu-sariak: hauetatik sortutako gastuak jasoko ditu.
 - Bestelako bidai gastuak: aurretik aipatu ez den kalte-ordaina jasotzeko moduko beste kontzeptuengatik.

- Descripción: concepto por el que se paga o ingresa.
- Importe: el del pago o ingreso.
- 4.– Registro de anticipos: deberá indicar en todo momento los anticipos para gastos concedidos, liquidados y pendientes de liquidar, es decir, de incluir como gasto en el archivo de facturas y, por tanto, en el registro de gastos, con el siguiente detalle:
 - Número de apunte de concesión: correlativo por fecha.
 - Fecha de concesión: fecha de entrega del anticipo. La entrega del anticipo requerirá la firma de un recibí de la persona a quien se concede.
 - Nombre y dos apellidos de la persona a quien se concede el anticipo.
 - Fecha de liquidación: en la que se liquida el anticipo y, por tanto, se incluye la liquidación en el archivo de facturas y en el registro de gastos.
 - Número de apunte de liquidación: correlativo por fecha.
 - Total acumulado, en cada momento, de los anticipos concedidos, liquidados y pendientes de liquidar.
- 5.– Registro de indemnizaciones por razón del servicio que recogerá la siguiente información individualizada por cada liquidación de gasto:
 - a) Nombre y apellidos del interesado.
 - b) Fecha de liquidación del gasto.
 - c) Importe total: Recogerá el importe total de la liquidación.
 - d) Desglose del importe total por concepto de gasto, con la siguiente clasificación:
 - Medios de transporte propios: recogerá los gastos en concepto de kilometraje por utilización de vehículo propio.
 - Combustible automóviles: recogerá los pagos efectuados por suministro de combustible a vehículos del Parque Móvil.
 - Peaje autopista.
 - Medios de transporte colectivos: avión, ferrocarril y otros.
 - Taxi.
 - Gastos de alojamiento: recogerá la cantidad correspondiente al alojamiento y desayuno cuando se pernocte fuera de la residencia oficial.
 - Gastos de comida y dietas de manutención: recogerá la cantidad satisfecha por los gastos originados por dichos conceptos.
 - Otros gastos de viaje: recogerá cualquier otro concepto indemnizable diferente de los anteriores.

6.– Transferentzia zerrenda: egun baten egiteko diren ordainketa guztiak jasoko ditu, aurreko artikulua adierazten duen arabera, honako honi jarraituz:

- Transferentzia zenbakia: korrelatiboa, egiten diren transferentzia-zerrenda bakoitzaren arabera.
- Apunte-zenbakia: korrelatiboa, dataren arabera.
- Ordainketa hartzen duen hirugarrenaren IFZ.
- Hirugarrenaren izena eta bi abizenak edo izen soziala.
- Hirugarrenaren finantza-etxea, sukurtsala eta kontu-zenbakia.
- Deskribapena: faktura zenbakia, hala badagokio, eta, orokorrean, gastuaren zioa.
- Ordaindu beharreko zenbatekoa.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Atxikipena edo BEZ kengarria duten ordainketak.

Atxikipena duten ordainketak edo, indarrean dagoen zerga-araudiari jarraituz, BEZ kengarria dutenak, ordaintzen prozedura zentralizatuaren arabera bideratuko dira beti.

Bigarrena.– Aldez aurreko fondoaren erregimenaren eragin-arloak.

211/1997 Dekretuaren 13.2 artikulua eta Bigarren Xedapen Gehigarriak ezartzen duten arabera, jarduteko gastuez gain, ondoren adierazten diren gastu motak tramitatu ahal izango dira aldez aurreko fondoaren sistemarekin, beti ere aipatutako arauan eta Agindu hone-tan ezarritakoarekin bat datozenean:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren I. kapituluaren sar daitezkeen pertsonalaren prestakuntza eta birziklatze gastuak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren IV. kapituluaren sar daitezkeen prestazio ortoprotetikoko eta osasun eta farmazia gastuei dagozkienak.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren VI. kapituluaren sar daitezkeen atzerrian dauden organoetako gastuak.

Hirugarrena.– Aldez aurreko fondoaren gastuen gehieneko zenbateko unitarioa.

211/1997 Dekretuaren 15.2 artikulua arautzen duenari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko sailetako organo nagusiek gehienez 3.000 euro (499.158 pezeta) kopuruko zenbateko unitario individualizatua duten gastuei dagozkien ordainketak egin ahal izango dute. Muga horren ondorioz, ezin izango da zatitu gastu bakar bat ere ordainketa ezberdinetan. Gastu unitario

6.– Relación de transferencias: recogerá todos los pagos que se decida realizar en un mismo día, de acuerdo con lo indicado en el artículo anterior, con el siguiente detalle:

- Número de transferencia: correlativo por cada una de las relaciones de transferencias que se realicen.
- Número de apunte: correlativo por fecha.
- N.I.F. del tercero al que se paga.
- Nombre y dos apellidos o razón social del tercero.
- Entidad financiera, sucursal y número de cuenta del tercero.
- Descripción: número de factura, si procede y, en general, concepto del gasto.
- Importe a pagar.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– Pagos con retención o IVA deducible.

Los pagos sujetos a retención o que, de conformidad a la normativa fiscal vigente, lleven IVA soportado deducible, se tramitarán en todo caso de acuerdo con el procedimiento centralizado de pagos.

Segunda.– Extensión del régimen de fondos anticipados.

A los efectos del artículo 13.2 y la Disposición Adicional Segunda del Decreto 211/1997, podrán tramitarse por el sistema de fondos anticipados los siguientes tipos de gasto, además de los de funcionamiento, siempre y cuando cumplan con los demás requisitos expresados en la citada norma y en la presente Orden:

a) Gastos de formación y reciclaje del personal imputables al Capítulo I de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

b) Gastos imputables al Capítulo IV de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi derivados de las prestaciones ortoprotésicas y del reintegro de gastos por asistencia sanitaria y farmacéutica.

c) Gastos imputables al Capítulo VI de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi efectuados por órganos radicados en el extranjero.

Tercera.– Importe unitario máximo de gastos con cargo a los fondos anticipados.

A los efectos del artículo 15.2 del Decreto 211/1997, los órganos centrales de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma sólo podrán realizar pagos que correspondan a gastos cuyo importe unitario individualizado sea inferior a 3.000 Euros (499.158 PTA). A los efectos de este límite, no podrá fraccionarse un único gasto en varios pagos. Se enten-

indibidualizatuak dira batera egin daitezkeen antzeko prestazioei dagozkienak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta gelditzen da Euskal Autonomi Elkar-tean eta bere erakunde burujabeetan aldezaurreko agizko dirubaltzen jaurbidea ezarri eta arautzen duen otsailaren 2ko 17/1993 Dekretua garatzen duen Ekonomi eta Ogasun sailburuaren 1993ko uztailaren 20ko Agindua. Indargabetuta ere gelditzen dira Agindu honen aurka egon daitezen maila bereko edo apalagoko xedapenak.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau 2000ko maiatzaren 1ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz 2000ko martxoaren 30a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

derá por gasto unitario individualizado el correspondiente a prestaciones homogéneas susceptibles de realizarse conjuntamente.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Orden de 20 de julio de 1993, del Consejero de Economía y Hacienda, por la que se desarrolla el Decreto 17/1993, de 2 de febrero, que establece y regula el Régimen de los Fondos Ordinarios Anticipados en la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos, así como cualquier otra norma de igual o inferior rango que se oponga a la presente Orden.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día 1 de mayo de 2000.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de marzo de 2000.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

I. ERANSKINA
BANKU ADOSTASUNAREN EREDUA

KONTABILITATE-KODEA:

BANKUA:

SUKURTSALA:

KONTU ZKIA.:

DATA LIBURUEN/A	DATA BANKU/A	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA PEZETAK
		SALDOA, LIBURUEN ARABERA, ...-...-... DATAN	_____
		KENTZEKO:	
		– Bidai gastuetarako aurreratutako pezetan edo dibisen itzulerak	_____
		– Bankuari eskatutako dibisak, kontabilizatu gabe ditugunak	_____
		GEHITZEKO:	
		– Fondoaren hasierako zuzkidura eta aldizkako berrezarpenak, Bankuak kontabilizatu dituenak baina guk ez	_____
		– Korrituen sehireko kitapena, Bankuak kontabilizatu dituenak baina guk ez	_____
		– Bankuak egindako ordainketen itzulerak eta kontabilizatu gabe ditugunak	_____
		– Guk agindutako transferentziak eta Bankuak kontabilizatu gabe dituenak	_____
		– Eskudiruaren erabilera, Bankuak kontabilizatzeke duena	_____
		SALDOA, BANKUAREN ARABERA, ...-...-... DATAN	_____

DATA EGILEA IKUSKATZAILEA

IZENPEA ETA ZIGILUA

IZENPEA

1. OHARRA: Aipatutako kontzeptu bakoitzak dituen eragiketen adierazpena egin beharko da, hala badagokio, hauetako bakoitzean data liburuen/a eta data banku/a azalduz.
2. OHARRA: Kontuaren funtzionamenduarekin arduratzen diren hiruretako batek egin beharko du eta dago-kion zerbitzu zuzendariak edo erakundeak ikustatu beharko du.

II. ERANSKINA
ALDEZ AURREKO FONDOEN KONTUKO ANALISI-EREDUA

KONTABILITATE-KODEA:

BANKUA:

SUKURTSALA:

KONTU ZKIA.:

		ZENBATEKOA PEZETAK
SALDOA, LIBURUEN ARABERA, ...-...-... DATAN		
GEHITZEKO:		
– Aldiaren berrezarpena		
– Kitatzeko dauden emandako aurrerakinak, aurreko ekitaldiaren bukaeran		
– Kutzako fondo finkoa		
ALDEZ AURREKO FONDOA GUZTIRA		
KENTZEKO:		
– Aldian sortu eta ordaindutako gastuak (berrezarpenerako ADO agiriaren zenbatekoa)		
– Kitatzeke dauden bidai gastuetarako jaso diren aurrerakinak (aurrerakinen erregistroko bidai gastuetarako saldoa)		
– Hirugarrenen kontuko saldoa (Emandako aurrerakinen itzuli gabeko zenbatekoak)		
– Kutzako fondo finkoa		
SALDOA, LIBURUEN ARABERA, ...-...-... DATAN		

DATA

EGILEA

IKUSKATZAILEA

IZENPEA ETA ZIGILUA

IZENPEA

OHARRA: Kontuaren funtzionamenduarekin arduratzen diren hiruretako batek egin beharko du eta dagokion zerbitzu zuzendariak edo erakundeak ikuskatu beharko du.

ANEXO I
MODELO DE CONCILIACION BANCARIA

CODIFICACION CONTABLE:

ENTIDAD BANCARIA:

SUCURSAL:

N.º DE CUENTA:

FECHA S/LIBROS	FECHA S/BANCO	DESCRIPCION	IMPORTE PESETAS
		SALDO SEGUN LIBROS A LA FECHA ...-...-...	_____
		MENOS:	
		– Devoluciones de pesetas o divisas anticipadas para gastos de viaje	_____
		– Divisas solicitadas al Banco pendientes de contabilizar por nosotros	_____
		MAS:	
		– Dotación inicial del fondo y reposiciones periódicas contabilizadas por el Banco y no por nosotros	_____
		– Liquidación semestral de intereses contabilizados por el Banco y no por nosotros	_____
		– Retrocesiones de pagos realizados por el Banco y pendientes de contabilizar por nosotros	_____
		– Transferencias ordenadas por nosotros y pendientes de contabilizar por el Banco	_____
		– Disposiciones en metálico pendientes de contabilizar por el Banco	_____
		SALDO SEGUN BANCO A LA FECHA ...-...-...	_____

FECHA

REALIZADO POR

REVISADO POR

FIRMA Y SELLO

FIRMA

NOTA 1: Cada uno de los conceptos indicados deberá desglosarse, si procede, en las operaciones que lo componen indicando para cada una de ellas la fecha s/libros y la fecha s/bancos.

NOTA 2: Deberá ser realizada por una de las tres personas responsables del funcionamiento de la cuenta y revisada por el Director de Servicios u Organo competente.

ANEXO II
 MODELO DE ANALISIS DE LA CUENTA DE FONDOS ANTICIPADOS

CODIFICACION CONTABLE

ENTIDAD

SUCURSAL

N.º DE CUENTA

		IMPORTE PESETAS
SALDO S/LIBROS A LA FECHA ...-...-..		
MAS:		
– Reposición del período		
– Anticipos concedidos pendientes de liquidar, al periodo anterior		
– Fondo fijo de caja		
TOTAL FONDO ANTICIPADO		
MENOS:		
– Gastos devengados y pagados por el período (importe del documento ADO de reposición)		
– Anticipos para gastos de viaje concedidos pendientes de liquidar (saldo del Registro de anticipos para gastos de viaje)		
– Saldo en cuentas de terceros (Importes no devueltos de anticipos concedidos)		
– Fondo fijo de caja		
SALDO S/LIBROS A LA FECHA ...-...-....		

FECHA

REALIZADO POR

REVISADO POR

FIRMA Y SELLO

FIRMA

NOTA: Deberá ser realizado por una de las tres personas responsables del funcionamiento de la cuenta y revisado por el Director de Servicios u Organo competente.